

# bertze itsasoaren itzala

Joan Margarit

ITZULPENA:  
Josu Jimenez Maia

 BOOKTEG



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

JOAN MARGARIT

# bertze itsasoaren itzala

Josep Maria Subirachs-i

Itzulpena:

Josu Jimenez Maia

## AURKIBIDEA

Margariten hizkuntza hautua – Fito Rodriguezen hitzaurrea

INFERNUA

RAQUEL

GAUEZKO ORDUTEGIAK

HOLOKAUSTOAREN MUSEOA, JERUSALEM

EZ ZEGOEN URRUN, EZ ZEN ZAILA

CONCA-REN PAISAIA

PLAZA PRÍNCIPE

PERGAMON MUSEUM

JENDEA HONDARTZAN

UNE ERRUKIGARRI BAT

ERRUKI-ETXEA

IRAKURTZEA

IDEALA

AUTOPISTA

JOAN MARAGALL

AUTOERRETRATUA ITSAS ONDOAN

AMARI EGINDAKO AZKEN AURREKO POEMA

NORTASUNA

## Margariten hizkuntza hautua – Fito Rodriguezen hitzaurrea

Poeta guztien ekarpen komuna idazketaren bidez sentitu, pentsatu eta adieraztea da, nahiz eta jardun horretan, literaturako izen ospetsu guztien artean, ez den erraza izaten irakurketagustuak asetzen dituen izen bakarra aurkitzea. Hala ere, literaturaren munduan, J.Conrad, Vladimir Nabokov, Milan Kundera eta beste autore asko ere aurkituko ditugu, beren literatura-hizkuntza aukeratu eta beren idazketa-ereduak sortu behar izan dituztenak, hala literatura-ekoizpenerako nola haren gozamenerako bideak garatzeko.

Izan ere, goian aipatutako guztiek hizkuntza aukeraketa bat egin behar izan zuten literatura sortu aurretik eta, batzuk, letren munduan lan egin dute hizkuntza ezberdinetan, adibidez, Joan Margaritek berak (1980 baino lehenago poesia gaztelaniaz bakarrik idatzi arren, handik aurrera katalanera nagusiki erabili ohi zuena).

Lan-hizkuntza literarioa zehazteko premia ez da inola ere huskeri bat, hori egoera elebitasunetik ez ezik norberaren elebiduntasunetik ere abiatzen da<sup>1</sup>, eta haren ekoizpen-garapenean, Montaignen kasuan bezala<sup>2</sup>, literatura-estilo mota markatzen du.

Dena den, hitz egitea eta idaztea bi gauza desberdinak badira ere, bietarako hizkuntza-gaitasun araztua behar da, nahiz eta literaturak, berez, egunerokotasunetik behar duena baino gehiago ez duen eskatzen. Literaturaren helburua litzateke, bada, modu singularrean eta beharrezkoan (ez erredundantean) adieraztea. Hau da, denontzat nabaria ez dena hizkuntzaren bidez bizitzari so egitea eta idazketaren dela medio, nabarmendutako hura erakusteko gai izatea. Eta nola egin daiteke hori? Sintaxia dela bide, alegia, edo, beste modu batera esanda, esaldi zehatzen bidez, hizkuntza jakin baten bidez eta, hautatutako hizkuntza horrek, hizkuntz ukipen egoera jakin batean beste hizkuntzekin harremanetan dagoenean, egin beharreko hizkuntza aukera suposatzen du lehenik eta behin...<sup>3</sup>

Idatzi nahi dugunaren muina transmititzen duten esaldiak lortzen ez baditugu, hori ez da behar bezala azalduko eta ezingo da irakurri, nahiz eta sentimendu koherenteak izan. Gainera, eta lehen esan dudan bezala, hizkuntza bakoitzak testu-eredu desberdinak ditu, sintaxi bereziak, berezkoak.

Beraz, aukeratutako hizkuntzan idaztea, hala nola Ionescok, Cioranek, Beckhettek, Pessoa, Borgesek edo Margaritek egin zuten bezala, horretan datza literaturaren hautu behinena..., sintaxi jakin baten bidez adieraztea, testu-eredu batzuen eta tradizio literario jakin baten aukera egitea esan nahi du hain zuzen ere, Flaubertek esango lukeen moduan.

Literatura-idazketaren oinarria hizkuntza-aukera da eta, horren arabera, (sintaxi) esaldi zehatzak erabiltzea ere bada. Ondorioz, idazten hasi aurretik jakin behar dugu zer hizkuntza erabiliko dugun, zer azalduko dugun eta nola garatuko dugun horri buruzko azalpena.

Poesia hitzontziaren aurka dago, eta hark agertarazitakoa gauzatuz onartuta zegoenari buruzko zalantzak sortzen ditu. Era berean, testu galkorrak proposatzen ditu, kontzientziak mugiarazteko collageak, hitz hausleak, irakurtzeko idatzia izaten direnak baina autorearen hizkuntza(k) dituen aukeren eta mugen arabera izkiriaturata betiere, Joan Margaritek erakutsi digunaren ereduaren bidetik.

[1](#)RODRIGUEZ, F. (1993). Hizkuntza, Hezkuntza eta Elebiduntasuna. Bilbo, UE

[2](#)RODRIGUEZ, F. (2011). Entsegu literarioaren bidean. Madril, Delta.

[3](#)RODRIGUEZ, F. (2020). Adostutako Tenorean. Madril, Delta. (Booktegin deskargatzeko)

## INFERNUA

Imagina ezazu udako gau bat itsasoaren ondoan,  
zabalduriko izaren artean,  
ilargia patioko barandak zeharkatzen ari delarik,  
eta azalean burdin-harien itzalak  
amets baten musika idazteko.  
Imagina itzazu irlak olibondoekin,  
marmolezko eta heriotzezko muinoak  
bertan Leonardo errege delarik, kondenatuta  
sekula lortu ez zuen gorri kolorearen ñabardura batengatik.

## RAQUEL

Den-dena ongi egiten irakatsi zizuten  
Jostaketan, txintxo-txintxo, leku seguruetara  
ohitzen zinen, laster desagertuko ziren  
leku seguruak, zeren eta ordena  
desordena bezain arriskutsua baita.  
Neskato baten gela itxiak dira,  
jadanik inor bizi ez den etxe baten  
ate-danbadak, haize-bufadak.  
Oso urrunetik zatoz,  
ahoa irribarre herabeti bat dakartzula  
txuri-beltzezko mundu batetik,  
zure amaren eta ikatz-berogailuaren mundutik,  
eta korridore bat  
garai bateko berotasuna gordetzen ez zuten  
oso kristal mehekin,  
patio bateko zeru urdinerantz  
galtzen zen berotasuna.  
Ohitu zinen zeure buruaz ez fidatzen. Ez zenuen ulertzen  
zer egin zenuen gaizki  
zuk esaten ez zenituen biraoak  
orain nik zuri esateko,  
baita destainazko keinuak zuri egiteko ere.  
Zeren eta maitatzen jakin izan duzu, bizitzak  
begietara heriotza anitz ekarri arren.  
Gaur berriz ere txuri-beltzezko neskato txintxo  
horren goxotasun herabetia dakarzu,  
den-dena ongi egiten ikasi zuen neskato horrena,  
hartara salbatu ahal izateko, hainbeste urteren bueltan  
gure maitasuna.



## GAUEZKO ORDUTEGIAK

Ohean zure ondoan natzalarik,  
trenen joan-etorria dut aditzen,  
eta beraien leihoetako argi piztuek  
ene kopeta dute zeharkatzen  
gau honen belusa urratzen.

Isilune bakoitzak argi  
gorri bat uzten dit kable eta trenbide  
ilun eta dirdiratsuen pentagraman  
nota bat. Ohean zure ondoan natzalarik,  
soinurik tristeena duten  
trenak urruntzen ditut aditzen.

Agian tren horietako batera ez igotzean  
okertu egin naiz.

Agian ongi jokatzea —zuri besarkaturik—  
gauezko trenak pasatzen uztean datza azkenik.

## HOLOKAUSTOAREN MUSEOA, JERUSALEM

Kupula handiaren pean ilun zegoen  
eta bertan, ume hilak argi txikiak ziren  
ortzia bezala dir-dir.

Ahots batek errezitatzen zuen amaigabeko  
izen zerrenda, otoitz baten gisara  
jainko batek inoiz entzun duen tristeena.

Joana alaba etorri zitzaidan burura, ume hilak  
beti iluntasun berean egoten dira-eta.

Zaharregia naiz: guztiengatik egin behar dut negar.

Etxeak eraiki ditut, burdinazko eskeletoak dituztenak,  
bagoien antzekoak, eta egunen batean  
jendeak jadanik imaginatzen duen amaierara  
arrastaka eramanen dituztenak,  
zeren eta guztiek ikusi dute egia  
distira bat ur putzu zikin batean.

Ume hilen areto hura ene baitan daramat.

Zaharregia naiz: guztiengatik egin behar dut negar.

## EZ ZEGOEN URRUN, EZ ZEN ZAILA

Garaia heldu da

jadanik galtzen ari den bizitzak ez du minik ematen,  
jadanik haragikeria alferrikako lanpara baino ez dela,  
eta ahantzi egiten da bekaizkeria.

Galera zuhurren,

beharrezkoen garaia da,

eta ez ailegatzeko garaia

joatekoa baizik. Orain, maitasunak  
adimenarekin bat egiten du azkenik.

Ez zegoen urrun,

ez zen zaila. Bada garai bat

bakardadea neurtzeko

soilik ortzimuga uzten diguna.

Tristura babesgarriaren garaia.

# CONCA-REN PAISAIA

(Solivella, Blancafort)

Mahastiek inguratu eta ezkutatutako bi herri,  
zure mina eta nire mina balira bezala.

Hilerriak, argi eta garbi,  
urruneko bi muinoetatik elkarri begira.

Aire urdin, isil eta hotzetik zehar.

Bi herri horien gisara, zure mina eta nire mina  
ezkutuan dira. Eta berriz ere  
sekula ikusiko ez dugun alaba  
guri begira dago geure begietatik.

Bizitza nekez da ulertzen, ez heriotza.

Heriotzak ez du neholako enigmarik gordetzen.

# PLAZA PRÍNCIPE

Santa Cruz de Tenerife

Ene erromantizismoa ez dator  
ez literaturatik ez musikatik,  
baizik eta irlen arteko itsasbidea  
egiten zuten posta eta zamaontzietatik.  
Gogoan ditut ontzi horiek plaza batekin batera,  
musikarientzako tenplete bat zuen plaza harekin,  
Indietako ereinotzen zurrumurren azpian.  
Bizitzak banderarik gabeko masta astinduaren antza  
hartu du poliki-poliki.  
Posta eta zamaontziek nabigatzen jarraituko dute beti  
ahantzurak bildurik,  
itsas zabaleko gau batean bezala,  
bat-bateko uhain epelek astindurik,  
Plaza Prínciperako norabidean.

## PERGAMON MUSEUM

Txanponaren aurpegiak urrezkoa du  
baina ifrentzuak, kuprezkoa, beltza eta zikina,  
heriotzaren urdinaz estalia. Europa barbaroak,  
museoaren eta musikaren Europak,  
badu arima ilun bat: zelatatu behar dugu  
Erromak beti egin zuen modura.  
Ilargia atera eta Marko Aurelio datorkit burura  
neguko bere kanpaina militarra  
ordoki izoztuetan, Danubio ibaiaren ertzeetan.  
Marko Aureliok longainaren azpian  
eta militar-jendailaz inguratuta ere,  
ahantzuraz eta malenkoniaz idazten zuen.  
Artearen eta filosofiaren atzean  
suteak eta zaldiak antzematen dira.

## JENDEA HONDARTZAN

Emakumeak aparkatu egin du.

Jaitsi eta, poliki-poliki, autotik atera du

aulki-gurpildun bat.

Gero, mutikoa hartu,

aulkian ezarri eta oinak ongi jarri dizkio.

Emakumeak ilea aurpegitik kendu eta aurki-gurpilduna

itsasorantz bultzatzen hasi da,

haizeak gona nola astintzen dion sentitzen duelarik.

Hondartzara egurrezko pasabidetik sartu du,

uretatik metro gutxira bukatzen den pasabidetik.

Handik oso hurbil, soroslea itsasoari begira dago.

Emakumeak mutikoa hartu du:

galtzarbeetatik hartu eta

uretarantz bizkarra emanda darama,

oin hilek hondarrean

bi ildo uzten dituztelarik.

Uhainetatik oso hurbil denean,

mutikoa bertan utzi eta atzera egin du

parasolaren eta aulki-gurpildunaren bila.

Azken metro hauek.

Azken metro madarikatu, anker hauek.

Metro hauek bihotza hautsiko dizute:

ez dago maitasunik, ez hondarrean, ez eguzkitan,

ez egurrezko pasabidean, ez soroslearen begietan,

ezta itsasoan ere.

Maitasuna, azken metro hauek.

Beren bakardadean.

## UNE ERRUKIGARRI BAT

Heriotza hauxe baino ez da: logela,

arratsalde argitsua leihoan,

eta irrati-kasete hau mahai txikian

zure bihotza bezain itzalita

zure kanta guztiekin betiko kantaturik.

Zure azken hatsa nire baitan gelditu da

zintzilik oraino: ez dut ahitzen uzten.

Badakizu, Joana, zein den hurrengo kontzertua?

Entzuten diezu umeei eskolako patioan jostaketan?

Badakizu, arrastirian,

nola izanen den gaurko gaua,

udaberriko gaua? Jendea etorriko da.

Etxeak argi oro piztuta izanen du.



## ERRUKI-ETXEA

Aita fusilatua.

Edo epaileak dioen gisan, ejecutado,

Ama, miseria eta gosea,

norbaitek makinaz idatzitako jakinarazpena jasotzen:

*Saludo al Vencedor, Segundo Año Triunfal,*

*Solicito a Vuecencia* seme-alabak uzteko

Erruki-etxean.

Etorkizuneko hotza eskabide batean dago.

Umezurtz-etxeak gogorrak ziren,

baina kale gorria, gogorragoa.

Benetako karitateak beldurra eragiten du.

Poesiaren antzera: poema on batek,

oso ederra izanagatik, gupidagabea behar du.

Ez dago deus gehiagorik: poesia dugu orain

azken erruki-etxea.

## IRAKURTZEA

Bertzeen bizitzetara sartzen naiz.

Egunak daramatzat irakurtzen, baina orain

liburutik begiak jaso ditut, zeren eta ohartu egin naiz

ezer gutxi dakidala liburua idatzi zuenaz.

Lotsa ematen dit ez ezagutzeak

haren buru-argitasuna baizik ez. Bizi-iraute oro

denborarik gabeko elkarrizketa isil

moduko bat da. Beldurgarria da

eta gogamenaren amildegian da gertatzen,

zeru urdin hotz bat, non maitasuna

irauteko modu bakarra den.

## IDEALA

Itzal atsegin hori,  
ene begien ispilutik zu noiz agertuko zain egon nintzen,  
eta hurbil-hurbil antzeman zaitut, balkoian,  
udako gauetan.

Isiltasune luzeetan pizten zara  
murru pobreetan karea argiarekin nola.

Eta bertze itsaso baten susmoan,  
ortzimugaren mosaiko urdinaren atzean.

Etxe huts honen atarian, arrosa gorriak utzi ditut,  
non eta zure zain egon nintzen toki berean,  
nor zaren, inoiz etorriko zaren jakin gaberik.

## AUTOPISTA

Hasi du iluntzen, eta autoan

Neruda-ren ahotsa bere poemak errezitatzen.

Gure faroek kamioien orroen artean

euria dute zeharkatzen. Antza, faroak

hilobi batean ahaztutako neskato bat bilatzen ari dira,

baita Nerudak sekula idatzi ez zuen poema hori ere.

Egolatra eta patetikoa, ene heroia.

Sentitu al zuen inoiz gau sakonean

maitatzea ez dela maitasun-kantuak egitea?

Neruda gizarajoa, poeta handi gizarajoa

lur azpian negarrez neskato batengatik

hilerri zahar batean haren zain egon ez zen neskatoarengatik

lore liliz eta horiz inguraturik,

Holandako zelaietan.

Poemek neskato hori ezkututzen dute, hildako txoria legez

haizeak orbelaz estalia.

# JOAN MARAGALL

Eraikizaile zaharrek  
fatxadaren horman  
sillareak uzten zituzten beti,  
noizbait ondoko orubean  
beste eraikin bat eginez gero  
bi eraikinak ongi uztarturik gera zitezen.  
Maragallek bere artelanetan sillareak  
utzi zituen, guk gurea berearekin  
uztartu ahal izateko, egunen batean.  
Bere buru-argitasun zibil eta arrazoizkoak  
erakutsi zidan poema batek, poema on batek,  
beti gupidatsua behar duela, gupida ezinbestekoa delako  
begirunea bilatzen baduzu,  
eta katalanez, gaur arte behintzat,  
beste poeta batek ez du sekula lortu,  
Maragallek lortu zuen gisan.

## AUTOERRETRATUA ITSAS ONDOAN

Ume isil hura. Jolasean bakarka.

Agure-begi hauen atzean datza,

eguerdiaren oldartze ikaragarriari aurre eginez

itsasoaren bertseta nahasiak entzuten dituelarik,

baita biluztutako gorputz herdoilduen oihua ere

harrizko hondartza ondoko ur hotz eta gardenetara

sartzen direlarik. Lotsaturik, ipuinen gordeleku batetik bestera

egiten dute lasterka.

Egizu lo ene baitan, ume babesgabea:

egizu lo ene baitan, eta egizu amets errege egunaren bezperarekin,

erratzak isilean hegan dabiltzala eta

otsoek elurrean utzitako oinatzekin.

Kanpoaldean, abrikotaz beteriko zero dirdiratsua,

eta aranez ilundutako itsaso urdina,

haitzen labar beltzekin desegiten dena.

Udak, alkohol hotzak begietan, ene bizitza sentiarazten dit

oroimenaren hezurraren inguruko fruitu-mami baten gisa,

iluna eta urre-kolorekoa.

Gorde zaitetz ene baitan buru-argitasun ankerretik.

Errezita ezazu elezahar hura, ume grisaz

eta bizikleta eskasaz mintzo den elezahar hura,

aldirietako txirrindulari tristeak daramanaz.

Zure bila dabil eta hurbiltzen ari zaizu.

Aztalka, honuntza.

## AMARI EGINDAKO AZKEN AURREKO POEMA

Gerla bukatutakoan, karrikara irten ginen  
jostaketan aritzera, eta zuk, hegazkin bat aditzean  
gure bila etortzen zinen  
harik eta hegazkinaren soinua  
hodei artean galtzen zen arte.  
Hautzaroko toki seguru horren hondarrak dira.  
Behin, gogoan dut,  
goizaldeko ordu txikitan jaiki nintzen  
eta zu han zeunden, iluntasunean,  
sukaldean geldi-geldi, kaio baten gisan  
harkaitz baten arrakala batean  
denboralea dagoelarik.  
Argi ahul bat baino ez dut ikusten:  
existitzen ez den etxearena,  
hain gizarajo ez nintzela sentiarazi ninduena.  
Harik eta arriskua  
ortzimugan galdu arte.

## NORTASUNA

Zer egin hitzekin bukaeran?

Jakiteko zer naizen, soilik bilatzen ahal dut,

haurtzaroan eta, orain, zahartzaroan:

gaua hotza eta garbia den lekuan,

oinarri logiko batean bezala.

Ene bizitzaren beste zati guztia

nahasmen bat da, inoiz ulertu ez dudanarengatik:

sexu-zalantza aspergarriak

eta adimenaren alferrikako

txinpartak. Bizi behar dut

tristurarekin eta zoriontasunarekin batera,

gupidagabeko auzokideak.

Azken egia hurbil da,

gogor-gogorra eta xalo-xaloa.

Haurtzaroko trenak bezala,

ene ondo-ondotik pasatzean

nasan jostaketan ari nintzelarik.